

EMARIEN BERRI EMATEKO DKT WEB APLIKAZIOA ERABILTZEARI BURUZKO INFORMAZIO ORRIA

1. HELBURUA

Agiri honen helburua aprobetxamenduetako pertsona eta erakunde titularrei DKT web aplikazioaren funtzio nagusien berri ematea da. (Eskuliburu guztia [aplikazioan](#) bertan deskargatu ahal izango da *Ereduak deskargatu eta laguntza* → *Aprobetxamenduetako emarien berri ematea* → *Laguntza* atalean).

DKT informazio sistemaren bitartez aldizka eta Internet bidez URARA bidali daitezke aprobetxamenduen emarietan egindako neurketak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko sailburuaren 2017ko apirilaren 24ko Agindua betez. Horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetan jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur-bolumenak kontrolatzeko sistemak arautzen dira. (Ikus *Datuen Erregistroa eta Komunikazioa* atala)

2. ERABILERA GIDA

1. [DKTren esteka](#)

2. **DKTra sartzea:** Ziurtagiri digitala (txartela) duten erabiltzaileak

3. Emariak KARGATZEA:

A. 100 L/S-KO (3. KATEGORIA) EDO GEHIAGOKO BAIMENDUTAKO GEHIENEZKO EMARIARENTZAT: hilabetea bukatuta egunero m³-tan jasotako bolumena adieraziko da. Horretarako hauxe egin beharko da:

- 1.) **Eredua deskargatu.** Menua: *Ereduak Deskargatu eta Laguntza* → *Aprobetxamenduetako emarien berri ematea* → *Eredu fitxategia*. (Hainbat hargune izanez gero, fitxategi horretan jasoko dira neurketa sistema guztietako erregistroak, serie zenbakia adieraziz).



Tel.: +34 945 011 700

Egoitza Nagusia - Sede Principal

Boulevard eraikina- Edificio Boulevard
Gamarrako Atea kalea, 1A - 11.
Solairua
c/ Portal de Gamarra 1A - Planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales

Urkixo zumarkalea, 36 -7. Solairua
c/ Alameda Urquijo, 36 - Planta 7
48011 Bilbao (Bizkaia)

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales


Intxaurren kalea, 70 -1 Solairua
Intxaurren, 70 - Planta 1
20015 Donostia/San Sebastián
(Gipuzkoa)


2.) Fitxategia betetzea:

1. *Irakurketaren eguna*: Derrigorrezkoa.
2. *Kontadorearen serie zenbakia*: Derrigorrezkoa.
3. *Irakurketa/Bolumena (m³)*: Aukerakoa. Kontadorearen irakurketa edo zeharkako neurketa metodoekin kalkulaturako bolumena da.

Etz utzi bete gabeko eremurik, bestela sistemak errorea emango du.

3.) Fitxategia kargatu. Menua: *Kargatzeko fitxategia* → *Aprobetxamenduetako emarien berri ematea* → *Fitxategiak kargatzea*:

1. Bete *Emakida espediente*a eta *Kudeatzailearen espediente*a eremuak jada kargatuta ez baldin badira agertzen.
 Lupan klik eginez zure titulartasunekoak diren espedientearen edo espedienteen kodeak ikusi ahal izango dira.
2. Sakatu *Baliozkotu fitxategia*
3. Sakatu *Kargatu fitxategia*



Egindako emarien karga zuzena izan den edo ez egiaztatzeko, zure egoera ikusi ahal izango duzu menutik hona sartuz: *Kargatzeko fitxategia* → *Aprobetxamenduetako emarien berri ematea* → *Fitxategien kudeaketa*. Honako egoeraren bat agertuko da:

- Kargatzeko dago
- Erroreekin prozesatzen
- Kargatuta

Erroreekin prozesatu baldin bada, erroreen xehetasunak ikusi ahal izango dira eremua aukeratuz eta *Kargaren Informazioa* atalean klik eginez. Honako egoeraren batean dauden fitxategiak ezabatu ahal izango dira: Kargatzeko dago edo Erroreekin prozesatzen.

B. Horrelako aprobetxamendu baten titularra baldin bazara:

- **BAIMENDUTAKO GEHIENEZKO EMARIA 100 L/S BAINO GUTXIAGOKOA ETA 4 L/S-KO (2. KATEGORIA) EDO GEHIAGOKOA**: hilabete bukaeran m³-tan jasotako **bolumena** adieraziko da.

Tel.: +34 945 011 700

Egoitza Nagusia - Sede Principal
Boulevard eraikina- Edificio Boulevard
Gamarrako Atea kalea, 1A - 11.
Solairua
c/ Portal de Gamarra 1A - Planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba)


Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa
Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales
Urkixo zumarkalea, 36 -7. Solairua
c/ Alameda Urquijo, 36 - Planta 7
48011 Bilbao (Bizkaia)


Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa
Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales
Intxaurren kalea, 70 -1 Solairua
Intxaurren, 70 - Planta 1
20015 Donostia/San Sebastián
(Gipuzkoa)

- **BAIMENDUTAKO GEHIENEZKO EMARIA 4 L/S (1. KATEGORIA) BAINO GUTXIAGOKOA:** urtero urtarrilean m³-tan jasotako bolumena adieraziko da.

Kasu bietan ere, honako hauek egin beharko dira:

- **Datuen berri eman.** Menua: *Informazioaren mantentzea* → *Aprobetxamenduetako emarien berri ematea* → *Datuak gehitu*.



1. Bete *Emakida espedientea* eta *Kudeatzailearen Espediente* eremu horiek jada kargatuta ez baldin badaude.
Emakida espediente eremuaren eskuineko aldean dagoen lupan  klik eginez zure titulartasuneko espedientearen edo espedienteen kodeak ikusi ahal izango dituzu.
2. Bete *Datu emate urtea* eremua. Eta *Datu emate hilabetea* eremua beteko da *datu emate mota Bigarrena* denean.
3. Sakatu *Irakurketa berria* eremuan. Irakurketaren data aukeratu, kontagailua hautatu eta bete *Irakurketa* eremua (ez bete *Bolumena* eremua).

Beste funtzio batzuk:

Datu emateen bilaketa, menua: *Informazioaren mantentzea* → *Aprobetxamenduetako emarien berri ematea* → *Datu emateen bilaketa*.

Ezin izango dira datu emateak ezabatu.

Paperean erregistratzeko aukera: Lehenengo edo bigarren kategorietako aprobetxamenduetako titularrek, aurreko atalean ezarritako moduan ez ezik, erregistro hori paperean gauzatu ahal izango dute. Horretarako, [Erregistro liburu](#) hau deskargatu beharko dute eta liburu horiek gutxienez 4 urtez gorde beharko dira. Datuak urtero bidaliko dira Euskal Agentziara urte guztietako urtarrilean.

GARRANTZITSUA: Erabiltzen den aukera gorabehera, URARA neurketen datu emate BAKARRA bidali beharko da emakida espediente bakoitzeko mota, urte eta hilabete bererako.

Tel.: +34 945 011 700

Egoitza Nagusia - Sede Principal
Boulevard eraikina- Edificio Boulevard
Gamarrako Atea kalea, 1A - 11.
Solairua
c/ Portal de Gamarra 1A - Planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa
Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales
Urkixo zumarkalea, 36 -7. Solairua
c/ Alameda Urquijo, 36 - Planta 7
48011 Bilbao (Bizkaia)

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa
Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales
Intxaurren kalea, 70 -1 Solairua
Intxaurren, 70 - Planta 1
20015 Donostia/San Sebastián
(Gipuzkoa)